

ENERGIA BURUJABETZA OÑATIN

AZKEN JAUZIA

Urriaren 11z geroztik, energia berriztagarrien sektorean barneraturik dagoen Goiener kooperatiba Oñatiko Ur Jauziak enpresaren bazkide da ofizialki. 2015. urtean Energiaren Euskal Erakundeak enpresatik irteteko asmoa erakutsi ostean, Oñatiko Udalak bilatzen zuen bazkide tekniko berria da. Udalerriko etxeetara ailegatzten den energiaren ziklo osoa euren esku izateko urrats garrantzitsua da.



Iñigo Igartua Anduaga
@igartua19

Deba ibaiaren haranean kokaturik dauden sei zentral elektrikoren bidez sortzen dute energia Oñatin. Herritarrentzat Olateko zentrala da ezagunena segur aski. Olateko txokoetan paseoan, korrika edo bizikletan ibiltzeko ohitura handia dute oñatiarrek, baina bertako zentral ondotik pasatzean gutxi batzuk ohartuko dira harrizko horma horien atzean ehun urte baino gehiagoko historia dagoenik.

Oñatiko energia ekoizpenaren has-tapenek 1893. urtera arte garamatzate. Orduan, hiru herritarren ekimenez Biain y Cía izeneko lehen argindar enpresa sortu zen. Sortzaileek kontzesioa lortu zuten Arantzazuko Santutegitik hurbil dagoen Araotz auzoko erreka turbinatzeko. Hamarkada batzuk geroago, 1915-1920 urte bitartean hain zuzen, Unión Cerrajerari eta Oñatiko Ur Jauziak (OUJ) enpresa sortu zuten; jabetzaren %90 Udalarena zen eta %10 Energiaren Euskal Erakundearena (EEE).

Hortik aurrera liskarrez beteriko garaia hasi zen, industriaren sendotasuna nabarmena baitzen herrian. Oñatiko energia banaketa sareak behar guztiei heldu ezin zionez, Antonio Lezama enpresarekin industriara elektrizitate indarra eramateko hitzarmena sinatu zuen Udalak. 1960an Antonio Lezamak negozio dena orduko Iberduerori –gaur egungo Iberdrola– saldu zion. Oraindik ere, Oñatiko industriarako energia banaketak Iberdrolaren esku jarraitzen du eta etxeetara berriz, Oñargi erakunde publikoak banatzen du.

Energia banatzaile handiagoen aldean prezioan diferentziarik ez dagoen arren,

» **Energia ekoitzi, banatu eta zabaltzen mendea baino gehiago daramate Oñatin; merkaturatzeko azken bultzada falta da**

Oñargiren balio erantsia zerbitzuaren “gertutasuna” da Mikel Biain Oñatiko alkatearen iritziz. Hain zuzen, Oñargik etxeetara banatzen duen energiari esker herri burujabea dela azpimarratu du alkateak: “Urtean 15 milioi kilowatt sortzen dute bertoko ur-jauziek, herriko etxebizitza, komertzio eta energia industrialak behar ez duten eraikin guztiak hornitzeko beste”.

1989. urtea mugarria izan zen Oñatiko energiaren kudeaketaren historian. Udalak Olateko zentral elektrikoa erosi zion Unión Cerrajerari eta Oñatiko Ur Jauziak (OUJ) enpresa sortu zuten; jabetzaren %90 Udalarena zen eta %10 Energiaren Euskal Erakundearena (EEE).

Orain berriz, OUJen sorrerako eragileei Goiener kooperatiba batu zaie. Honek ere %10eko jabetza izango du, sozietate publikoaren 445.000 euroko kapital hazkunderari aurre egin ondoren. Santi Ochoa de Eribe Goienerreko zuzendariak azaldu duenez elkarlanerako asmoa ez da hutsetik azaldu bapatean, “2015. urtean EEEren parte hartzea OUJen iraungitzeaz zegoen eta Oñatiko Udalarekin elkarlanean aritzeko bien partetik zegoen





berari helduz, Goiener sartu aurretik ere OJren egoera “ona” zela aitorturik, kapital hazkundearekin lasaiago egingo diote aurre zentralen instalakuntzak hobetzeari, Ochoa de Eriberen ustez.

Azken urratsa falta

Energia ekoiztu, banatu eta zabaltzen mendea baino gehiago daramate Oñatin, baina energiaren hiru zutabeak betetzeko merkaturatzeari dagokion azken bultzada falta da. Gaur egun, Merkaño merkaturatzailearen bidez egiten da, baina honek ez du zuzenean energia saltzen. Aramaio, Tolosa, Leintz Gatzaga edo Oñatiko merkaturatzaile txikien baturatik sortu zen proiektua da Merkaño. Enpresa publiko txiki horiek CHC konpainia elektriko partizipazio txikia erosi zuten eta ondorioz, herriko energiaren merkaturatzea CHCk egiten du propio.

CHC bezalako enpresa handi baten filosofia Oñatiko Udalarenarekin bat datorren zalantzan jarrita, ekoizturiko energia bertako eragile baten bidez herritarrei saltzea da hurrengo erronka Biainen ustez: “Goiener ekoizpen arloan sartu da oraingoz, baina beraien laguntzarekin Oñargi energiaren merkaturatzean hastea gustatuko litzaiguke”. Oñatin energia burujabetzarantz egiten ari diren lana “borobilduko” lukeen urratsa izango litzatekeela dio.

Epe ertainean sortu daitekeen abagune horri begira, Ochoa de Eribe atek irekita ikusten ditu: “Aukera tekniko eroso eta demokratikoa proposatzeko egoeraren azterketa egin beharko genuke alde aurretik, baina beste merkaturatze kooperatiba batzuei ere laguntzen diegu dagoeneko eta jarduera oso ongi ezagutzen dugu”. ■

urruneko desioa errealitate bihurtzeko gai izan gara orain”. Biain ere baikor agertu da bi enpresen arteko akordioarekin, “Euskal Herriko energiaren mapan esanguratsua den bazkide berria izateaz pozik gaude. Sektorean etorkizunean sortuko diren aukerak identifikatzen eta aukera onak hartzen lagunduko digute, besteak beste”.

Goiener OJen proiektura batu izanak Energiaren Euskal Erakundeak duela

bi urte proiektua uzteko erakutsi zuen jarrera aldatzera bultzatu duela dirudi. Enpresaren sorreratik izan duen jabetzaren %10a mantentzeko hautua egin du EEEK.

Oraindik bilera bakarra egin duten arren, elkarlanean emango duten hurrengo urratsa azaldu du alkateak: “Goienerren diru-ekarpenarekin eta elkartearen zenbatekoekin zentralen ekoizpena hobetzeko inbertsio plana izango da”. Hari

